2019ko

# MEMORIA

Segurtasun Sailburuordetza
Viceconsejería de Seguridad



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

# 2019KO MEMORIA

EUSKO JAURLARITZA

SEGURTASUN SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



# AURKIBIDEA


1. ERTZAINTZA ........................................................................................ 6

2. LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIA ......................... 38

3. TRAFIKOA ............................................................................................. 68

4. JOKO ETA IKUSKIZUNAK ................................................................... 112

5. SEGURTASUNA KOORDINATZEKOA ............................................... 136


# ÍNDICE


1. ERTZAINTZA ........................................................................................ 6

2. ATENCIÓN DE EMERGENCIAS Y METEOROLOGÍA ............................. 38

3. TRÁFICO .............................................................................................. 68

4. JUEGO Y ESPECTÁCULOS .................................................................. 112

5. COORDINACIÓN DE SEGURIDAD ..................................................... 136


1
POLIZIA

# ERTZAINTZA






# AURKIBIDEA

1. ESTRATEGIA
2. ZERBITZUAK
3. PERTSONAK
4. BERRIKUNTZA
5. GIZARTEA
6. EMAITZAK

# ÍNDICE

1. ESTRATEGIA
2. SERVICIOS
3. PERSONAS
4. INNOVACIÓN
5. SOCIEDAD
6. RESULTADOS

# 1. ESTRATEGIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen aldaketak, 2019an onartutakoak, polizia-zerbitzuak eskubide berberak dituzten gizon eta emakumez osatutako gizarte ireki, anitz eta elebidunarekin uztartzea sendotu nahi du. Horretarako, legeak bere egiten du, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari aplikagarri zaion ordenamenduaren zati gisa, Poliziaren Etikaren Kode Europarrari buruzko Europako Kontseiluaren gomendioa. Ertzaintzaren Estrategia osatzen duten elementuak helburu horrekin lerrokaturik daude, Ertzaintzari bere eredua osorik garatzen laguntzeko.

## MISIOA

Ertzaintza Euskadiko polizia integrala da. Zerbitzatzen duen gizartearekin konprometitua, bakea eta bizikidetza bultzatzen ditu, bai eta pertsonen segurtasuna eta ongizatea ere.

## IKUSPEGIA

Ertzaintzak aintzatespen-maila altua lortu nahi du, etika publikoarekiko eta giza eskubideekiko errespetua sustatzeagatik.

Bere Ereduan oinarrituta, eguneroko jarduera hobetzeko lanean jarraituko du, eta halaxe finkatuko du bere lidergoa, pertsonen hazkundea sustatus, autonomia-maila altua bultzatuz eta eguneroko parte-hartzea suspertuz.

Gizartearekin estuki lanean arituko da bere zerbitzuen egokitzapenean eta efizientzian, bai segurtasunaren arloan baita laguntzaren arloan ere, zerbitzu horiek emateko hurbiltasuna bultzatuz.

# 1. ESTRATEGIA

La modificación de la Ley de Policía del País Vasco aprobada en 2019, persigue afianzar la imbricación de los servicios policiales con una sociedad abierta, plural, bilingüe y constituida por hombres y mujeres iguales en derechos. Para ello asume como parte del ordenamiento aplicable a la Policía del País Vasco la Recomendación del Consejo de Europa relativa al Código Europeo de Ética de la Policía. Los elementos que constituyen la Estrategia de la Ertzaintza están alineados con esa finalidad para ayudar a la Ertzaintza a desarrollar plenamente su Modelo.

## MISIÓN

La Ertzaintza es la Policía integral de Euskadi. Comprometida con la sociedad a la que sirve, promueve la paz y la convivencia, la seguridad y el bienestar de las personas.

## VISIÓN

La Ertzaintza persigue un alto nivel de reconocimiento por su fomento de la ética pública y del respeto a los Derechos Humanos.

Sobre la base de su Modelo, seguirá trabajando en la mejora de la actividad diaria y consolidará un liderazgo que facilite el crecimiento de las personas, promueva un alto nivel de autonomía y fomente la participación diaria.

Continuará trabajando estrechamente con la sociedad en la adecuación y eficiencia de sus servicios, tanto de seguridad como asistenciales, impulsando la cercanía con que se prestan.

# BALIOAK

## HURBILTASUNA

Pertsona guztiekiko jarrera irekia eta hurbilekoa dugu.

## KONFIANTZA

Zuzentasunez eta gardentasunez jarduten dugu, eta zintzo komunikatzen gara.

## KONPROMISOA

Arazoak konpontzen lagunduko duten erantzun eraginkorrak emateko inplikatzen gara.

## TALDEA

Kohesionatuta lan egiten dugu, lidergo aktibo batek gidatuta.

## BILAKAERA

Elkar etengabe ebaluatzen dugu hobetzen jarraitzeko.

# VALORES

## CERCANÍA

Mantenemos una actitud abierta y cercana a todas las personas.

## CONFIANZA

Actuamos con honestidad y transparencia y nos comunicamos de forma sincera.

## COMPROMISO

Nos implicamos para dar respuestas eficaces que ayuden a resolver los problemas.

## EQUIPO

Trabajamos de forma cohesionada guiados por un liderazgo activo.

## EVOLUCIÓN

Nos evaluamos de forma continua para mejorar.



# 2. ZERBITZUAK

Ertzaintzak zerbitzatzen duen gizartearekin duen konpromisoa agerian jartzen du, estu lan eginez segurtasun-zerbitzuak nahiz laguntzakoak gizartearen errealitatera efizientzia handiz egokitzeko, horretarako arreta berezia jarriz bere baliabide materialak bilakaera teknologikora egokitzeko.

## 2.1 PREBENTZIOA KOMUNIKAZIOAREN BIDEZ LANDUZ

“Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz” programak, Ertzaintzaren prebentzioko polizia-ereduaren tresna gisa, Euskadiko herritarrek segurtasunaren arloan dituzten premiei erantzuna ematea du helburu, gizartearen gehiengora ez ezik gizarte osora ere iritsi ahal izateko.

Bide horretan, 2019an Ertzaintzak areagotu egin ditu gizarte anitza osatzen duten sektore guztiak artatzeko ahaleginak, zehazki gutxiengo etnikoekin eta LGTBI komunitatearekin egindako lanaren bitartez.

# 2. SERVICIOS

La Ertzaintza pone de manifiesto su compromiso con la sociedad a la que sirve y trabajará estrechamente con ella, adecuando sus servicios, tanto de seguridad como asistenciales, a la realidad social, con un alto nivel de eficiencia, para lo cual prestará especial atención a la adecuación de sus recursos materiales a la evolución tecnológica.

## 2.1 PREVENCIÓN DESDE LA COMUNICACIÓN

El programa “Prevención desde la Comunicación”, como herramienta del modelo de prevención policial de la Ertzaintza, tiene como objetivo dar respuesta a las necesidades de seguridad que tenga la ciudadanía vasca, de manera que alcance no solo a la sociedad mayoritaria, sino a toda la sociedad en su conjunto.

En esta línea, durante el año 2019, la Ertzaintza ha redoblado los esfuerzos para atender a todos los sectores que componen la sociedad diversa, y en concreto, a través del trabajo desarrollado con minorías étnicas y con la comunidad LGTBI.

### DIBULGAZIO-JARDUERA GUTXIENGO ETNIKOEKIN
### ACTIVIDAD DIVULGATIVA CON MINORÍAS ÉTNICAS

| | | |
|---|---|---|
| **Ijito herria / Pueblo gitano** | **26** jarduera / actividades | **550** pertsona hezita / personas formadas |
| **Errefuxiatuak eta/edo migratzaileak / Personas refugiadas y/o migrantes** | **10** jarduera / actividades | **264** pertsona hezita / personas formadas |

Programaren dibulgazio, lankidetza, inklusio eta bizikidetza lanak formakuntza-bilera asko eragiten ditu ikastetxe eta hezkuntza-zentroetan, baita aniztasun eta berdintasunaren alde eta diskriminazioren aurka lan egiten duten elkarte eta kolektibo sozialekin ere.

La labor divulgativa, colaborativa, inclusiva y convivencial del programa comprende numerosas reuniones formativas en centros escolares y educativos, así como con distintas asociaciones y colectivos sociales que trabajan por la diversidad, la igualdad y la no discriminación.

| | | |
|---|---|---|
| Dibulgazio-jarduerak, guztira | **1.390** | Total actividades divulgativas |
| Prestakuntza jaso duten pertsonak, guztira | **43.596** | Total personas formadas |



“Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz” jardunaldia Iurretan. Bertan, besteak beste, Gao Lacho Drom ijito elkartearen ordezkariak izan ziren.

Jornada de “Prevención desde la Comunicación” en Iurreta que contó, entre otras, con la representación de la asociación gitana Gao Lacho Drom.

## 2.2 ISLAMISMO ERRADIKALAREN AURKAKO ESTRATEGIA

Ertzaintza 2019an hasten da Global Shield Network sarean sartzeko izapideak egiten. Estatu Batuetan 2000ko hamarkadan sortutako polizia-kidegoen sare honek, terrorismoaren aurkako borrokan polizien eta erakunde publiko eta pribatuen arteko aldebiko lankidetza bideratzea du helburu.

New Yorkeko Poliziak 11Sko atentatuen ostean sortu eta sustatutako sare hori Estatu Batuetan hedatu zen lehenbizi, 2018an Europara iritsiz, Anbereseko (Belgika) Polizia sarean sartu zenean. Belgikako polizia-kidegoaren eta Ertzaintzaren arteko harreman bereziaren emaitza gisa, Ertzaintzak 2019an hasten du, Inteligentzia Bulego Nagusiaren bitartez, Global Shield Network sarean sartzeko prozesua, eta 2020an eskubide osoko kide bilakatzea aurreikusten da. Une garrantzitsua izango da Ertzaintza nazioartekotzeko bidean, nazioarteko sare horretako Europako lehenengo kideetako bat baita, eta ez dago zalantzarik gure inguruko beste hiri eta herrialde batzuetara ere hedatuko dela.

## 2.2 ESTRATEGIA CONTRA EL ISLAMISMO RADICAL

La Ertzaintza inicia en 2019 los trámites para su incorporación a Global Shield Network, red de cuerpos de policía nacida en Estados Unidos en la década de 2000, que tiene por objetivo la colaboración bilateral entre policías y organismos públicos y privados en la lucha contra el terrorismo.

Creada y promovida por la Policía de Nueva York tras los atentados del 11S, se extendió primero a nivel nacional para dar el salto a Europa en 2018, cuando la Policía de Amberes (Bélgica) se unió a la red. Fruto de la especial relación tejida entre el cuerpo policial belga y la Ertzaintza, esta última inicia en 2019, a través de la Oficina Central de Inteligencia, el proceso para incorporarse a la Global Shield Network y está previsto que en 2020 se convierta en miembro de pleno derecho. Constituirá un importante hito en la internacionalización de la Ertzaintza, al ser uno de los primeros miembros europeos de esta red internacional, que se irá extendiendo sin duda a otros países y ciudades de nuestro entorno.

## 2.3 INTZIDENTE KRITIKOAK ETA APARTEKO INTZIDENTE BORTITZAK. SIMULAKROA BOULEVARDEN

Horrelako gertaeretan sor daitezkeen egoerak testuinguruan kokatzen laguntzen duten jarduera-simulakroak egitea bultzatu da (gertakari kritikoak eta indarkeriazko gertakari bereziak). Ertzaintzako Unitate ezberdinetako baliabideek eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuetako pertsonalak eta bitartekoek aparteko intzidente bortitz bat simulatu zuten Gasteizko Boulevarden 2019ko urtarrilaren 18an. Armak eta lehergailuak erabiliz egin zen eta biktima ugari eragin zituen eraso terrorista yihadista bat simulatu zen.

## 2.3 INCIDENTES CRÍTICOS E INCIDENTES EXTRAORDINARIOS VIOLENTOS. SIMULACRO EN EL BOULEVARD

Se ha impulsado la realización de simulacros de actuación que ayuden a contextualizar situaciones que puedan surgir en este tipo de hechos (Incidentes Críticos e Incidentes Extraordinarios Violentos). El 18 de enero de 2019, los recursos de las distintas unidades de la Ertzaintza, junto a personal y medios de otras entidades públicas y privadas, simulan un Incidente Extraordinario Violento en el centro comercial Boulevard de Vitoria-Gasteiz, consistente en un ataque terrorista yihadista mediante el uso de armas y explosivos que causa múltiples víctimas.




Ateratako ondorioei esker, dagozkien analisi eta balorazioak egin dira, beharrezko jo diren prozedurak aldatu dira eta Ertzaintzako agenteei jarduketen berri eman zaie.

## 2.4 SEXU-ESPLOTAZIORA BIDERATUTAKO GIZA SALEROSKETAREN AURKAKO PLANA

Sexu-esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako plana egonkortzen eta hazten ari da Ertzain-etxe guztietan.

2018an erregistratutako datuetan oinarrituta, Giza salerosketaren aurka borroka egiteko, Ertzaintzako Batzorde Iraunkorrak (CETSH) giza salerosketak EAEn duen intzidentziari buruzko mapa egin du.

Las conclusiones extraídas han permitido la elaboración de los correspondientes análisis y valoraciones, así como la modificación de los procedimientos que se han estimado pertinentes y la difusión de las formas de actuación entre los y las agentes de la Ertzaintza.

## 2.4 PLAN CONTRA LA TRATA DE SERES HUMANOS CON FINES DE EXPLOTACIÓN SEXUAL

El Plan contra la trata de Seres Humanos con fines de Explotación Sexual se encuentra en plena fase de asentamiento y crecimiento en todas las Ertzain-etxeak.

Con los datos registrados en 2018, la Comisión Estable del Plan contra la Trata de Seres Humanos (CETSH) ha confeccionado el mapa sobre la incidencia del fenómeno de la trata en la CAE.

Plana Ertzaintza osoan inplementatzearen emaitzak, Segurtasuneko Sailburuaren gobernu-taldeari, Ertzaintzaren Zuzendaritza Kontseiluari eta Euskadiko Giza Salerosketaren aurkako Mahaiko (EMAKUNDE du buru) kideei azaldu zaizkie. Batzordeak egindako azterlanak, Plana inplementatzeko abian jarritako 122 polizia-ikerketak ere aipatzen ditu, bai eta delitu-tipologia horren aurkako borroka hobetzea helburu duten hainbat gogoeta ere.

Los resultados de la implementación del Plan en toda la Ertzaintza han sido expuestos al Equipo de Gobierno de la Consejera de Seguridad, al Consejo Directivo de la Ertzaintza y a las personas integrantes de la Mesa de la Trata de Euskadi (ente liderado por EMAKUNDE). El estudio elaborado por la Comisión cita también las 122 investigaciones policiales que se han puesto en marcha con motivo de la implementación del Plan y una serie de reflexiones que tienen como objetivo mejorar la lucha contra esta tipología delictiva.

## 2.5 INTELIGENTZIAK GIDATUTAKO POLIZIA

BAIETZ tresna analitikoaren helburua, Ertzaintza osoan era eta mota guztietako delituen analisia sustatzea da; inteligentzia maila ezberdinetan erabakiak hartzen lagunduko duen informazio erabilgarria sortzeko oinarrizko tresnak garatuz, aztertutako datuak kalitatezko standarrekin lagunduz eta kudeaketa-eredua optimizatu segurtasun publikoko ekimenen prebentzio eta/edo ikerketa-jardueran.

## 2.5 POLICÍA GUIADA POR INTELIGENCIA

La herramienta analítica BAIETZ tiene como objetivo promover el análisis delictivo en sus diferentes formas y tipos en el conjunto de la Ertzaintza, a través del desarrollo de herramientas básicas para la generación de información útil en la toma de decisiones en los distintos niveles de inteligencia, ayudar con estándares de calidad en los datos examinados y optimizar el modelo de gestión en el actuar preventivo y/o investigativo de las iniciativas de seguridad pública.




Andaluziako Juntak, Giza Salerosketaren aurkako Planaren inplementazioa dela-eta, Ertzaintzari egindako aintzatespena.

Reconocimiento de la Junta de Andalucía a la Ertzaintza con motivo de la implementación del Plan de Trata.

BAIETZ tresnaren bidez inteligentzia–txostenak lantzeko aukera ematen da, gertaerak, kokalekuak, denborak, ezugarri bereziak, delituen edo intzidenteen erregistroen arteko kidetasunak zehazteko eta delitu-jarduera edo arau-hausle baten identitatearen patroi bat identifika dezakeen edozein inguruabar esanguratsu zehazteko, beti ere errekurtsoak antzeko egintzak behin eta berriz gertatzea eragoztera bideratuz.

Ikuspegi proaktibo horren emaitza gisa, 2019an BAIETZen garapen berriak landu dira, analisi kriminalaren arloan formakuntza eta gaikuntza akademikoa emanez eta tresnaren erabileran aurrerapen teknologikoak landuz.

A través de BAIETZ se ofrece la posibilidad de elaborar informes de inteligencia a fin de determinar los hechos, las ubicaciones, los tiempos, las características singulares, las similitudes entre los distintos registros delictivos o incidentales, y cualquier otra circunstancia significativa que identifique la posible existencia de un patrón de la actividad delictiva o de la identidad de un infractor, que permitan dirigir a los recursos con el objeto de evitar futuros hechos recurrentes y similares.

Fruto de esa visión proactiva en BAIETZ, en el año 2019 se ha avanzado en nuevos desarrollos, impartiendo formación y capacitación académica en materia de análisis criminal y de los avances tecnológicos en el uso de la herramienta.





## 2.6 ETXEKO INDARKERIAREN ETA GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK (EI/GI)

2019an aipagarriena genero-indarkeriaren ondorioz emakumeen heriotzarik eza izan da; gertaera argitaragabea EAEn, orain dela 17 urte bikoteek edo bikote ohiek hildako emakumeak zenbatzen hasi ginenetik. Ertzaintza buru-belarri eta etengabe ari da lanean Euskadiko gizartearen maila guztietan eragina duen gaitz horren aurkako borrokan, kezka eta ardura nagusia biktimak babestea eta halako kasuei aurrea hartzea izanik, guztia emakumeen aurkako indarkeria desageraraztearen alde lan egiten duten gainerako erakunde eta antolakundeekin lankidetzanarituz.

2019an Ertzaintzak eta udaltzaingoek, etxeko indarkeriari eta/edo genero-indarkeriari tratamendu partekatua emateko, EBA proiektu estrategikoa jarri dute abian. Informazioa partekatzeko eta kudeatzeko helburuarekin, plataforma informatiko bat jarri da martxan, beste erakunde batzuentzat ere eskuragarri izan daitekeena.

## 2.6 VÍCTIMAS DE VIOLENCIA DOMÉSTICA Y VIOLENCIA DE GÉNERO (VD/VG)

El aspecto más destacable de 2019 ha sido la ausencia de muertes de mujeres por Violencia de Género; un hecho inédito desde que hace 17 años se empezaran a contabilizar en la CAE los asesinatos de mujeres a manos de sus parejas o exparejas. La lucha contra esta lacra que afecta a todos los estratos de la sociedad vasca es objeto de un intenso y permanente esfuerzo por parte de la Ertzaintza, cuya principal preocupación y ocupación, en este ámbito, es la protección de las víctimas así como la prevención de posibles casos. Todo ello en colaboración con el resto de Instituciones y Organizaciones que trabajan por la erradicación de las violencias contra la mujer.

A lo largo de 2019 se ha puesto en marcha el proyecto estratégico EBA para el tratamiento compartido de la Violencia Doméstica y/o de Género por parte de la Ertzaintza y de las policías locales. A fin de compartir y gestionar la información, se ha creado una plataforma informática con la pretensión de que sea accesible a otras Instituciones.




Bestalde, Ertzaintzak eta EAEko espetxeek “Elkarrizketak espetxean genero-indarkeriaren arloko erasotzaileei, lehenbiziko aldiz espetxetik irten aurretik” izeneko proiektuari hasiera ematea adostu dute. Aldez aurreko elkarrizketa honen helburua, erasotzaileari buruzko informazioa lortzea da, duen arriskua modu seguruan baloratu ahal izateko eta berriro berrerortzea galarazteko.

Por otra parte, la Ertzaintza y los centros penitenciarios de la CAE han acordado iniciar el proyecto denominado “Entrevistas en prisión antes de la 1° excarcelación a agresores de Violencia de Género”. Esta conversación previa tiene como objetivo la obtención de información sobre el agresor que permita realizar una valoración de riesgo certera, así como su disuasión para evitar que reincida.

## 2.7 ATXILOTUTAKO PERTSONEN KUDEAKETA BATERATUA, “ATXILOTEGI ARRUNTA”

2019ko urriaren 2an jartzen da abian Bilboko Ertzain-etxean Bilboko barruti judizialean atxilotutako eta ziegatan sartutako pertsonen kudeaketa zentralizatua. Kudeaketa horrek Basauri, Bilbo, Erandio, Galdakao eta Laudioko polizia-unitateetan eta Bizkaiko Trafikoko Lurralde Unitatean izan du eragina.

## 2.7 GESTIÓN UNIFICADA DE DETENCIÓN DE PERSONAS “ATXILOTEGI ARRUNTA”

El 2 de octubre de 2019 se pone en marcha en la Ertzain-etxea de Bilbao la gestión centralizada de las personas detenidas en el partido judicial de Bilbao que requieran ingreso en calabozos, afectando a las Unidades Policiales de Basauri, Bilbao, Erandio, Galdakao, Laudio y a la Unidad Territorial de Tráfico Bizkaia.

Zentralizazio horrek Arartekoaren, Herriaren defendatzailearen eta Europako Kontseiluaren gomendioak inplementatzea du helburu, baliabideen eraginkortasuna hobetzea eta inplikatutako erakundeekin koordinazioa suspertzea, beti ere atxilotuen bizitza, integritate fisikoa eta psikikoa zaindu behar direla kontuan izanik, eta horien eskubideak, ohorea eta duintasuna errespetatu behar direla, baita atxiloketan parte hartzen duten agenteen segurtasun fisikoa, psikikoa eta juridikoa bermatu ere.

## 2.8 LANDA-INGURUNEKO ARRETA

Ekainaren 24an egin zen Berroziko instalazioetan, Ertzaintzak landa-inguruneari ematen dion arreta-zerbitzuari buruzko gogoeta eta analisi jardunaldia. Topaketan zerbitzu horren garrantzia jarri zen agerian, kontuan hartuta ingurune horretan batez ere adinekoak bizi direla, bakarrik bizi direla eta Ertzaintza inguruan izateak segurtasuna ematen diela.

Esta centralización responde al objetivo de implementar las recomendaciones del Ararteko, Defensor del pueblo y Consejo de Europa, mejorar la eficiencia de los recursos y perfeccionar la coordinación con las entidades implicadas, siempre teniendo en cuenta la necesidad de velar por la vida e integridad física y psíquica de las personas detenidas, respetando sus derechos, honor y dignidad, y garantizando la seguridad física, psíquica y jurídica de las y los agentes que participan en la detención.

## 2.8 ATENCIÓN AL MEDIO RURAL

El 24 de junio se celebra en las instalaciones de Berrozi una jornada de reflexión y análisis sobre el modelo de patrulla rural y las necesidades de seguridad de la población en el entorno rural. En el encuentro, se pone de manifiesto la importancia de este servicio en un entorno habitado principalmente por personas de edad avanzada, que viven en soledad, y para quienes la presencia de la Ertzaintza, su cercanía, reporta seguridad.



# 3. PERTSONAK

Bere Balioen adierazpenean oinarrituta, Ertzaintzak bere lidergo-eredua sendotu, indartu eta hedatuko du, bereziki pertsonak hazten sustatzean oinarrituko dena, beraien autonomia erraztuz eta erabakiak hartzeko prozesua hobetuz. Arreta berezia eskainiko zaio pertsonek ereduaren garapen integralean parte hartzeari.

Gaikuntza-profesionala ezagutza teknikoetan eta gatazka konpontzen lagunduko duten trebetasun eta abilezia sozialetan oinarrituko da, azken batean, lanbide-jarduna hobetzeko.

## 3.1 LANGILEAK

Ertzaintza belaunaldiz belaunaldi berritzeko prozesuan sakondu da. 2019an 332 ertzain hasi dira praktiketan, Ertzaintzaren XXVII. Promozikoak (267 gizon eta 65 emakume). Bestalde, XXVIII. Promozioaren formakuntza hasi da, ugarienetakoa, guztira 656 izangairekin, horie-

# 3. PERSONAS

Apoyándose en su declaración de Valores, la Ertzaintza consolidará, fortalecerá y extenderá su modelo de liderazgo, que se fundamentará de forma particular en promover el crecimiento de las personas, facilitando su autonomía y mejorando la toma de decisiones. Se pondrá especial atención en la participación de las personas en el desarrollo integral del Modelo. La cualificación profesional estará sustentada en los conocimientos técnicos y en las destrezas y habilidades sociales que faciliten la resolución de conflictos para, en definitiva, mejorar el desempeño profesional.

## 3.1 PLANTILLA

Se profundiza en el proceso de renovación generacional en la Ertzaintza. En el año 2019 tiene lugar la incorporación de 332 ertzainas en prácticas (267 hombres y 65 mujeres) pertenecientes a la XXVII Promoción de la Ertzaintza. Así mismo, se inicia la formación de la XXVIII



tatik 202, hau da, % 30,8a, emakumeak izanik, orain arte izan den emakume-kopururik handiena.

Promoción, una de las más numerosas, con un total de 656 aspirantes de los que 202 son mujeres, lo que supone un 30,8 % , la cota de representación femenina más elevada hasta la fecha.

## ERTZAINTZA, 2019KO PLANTILLA*
## PLANTILLA ERTZAINTZA 2019*







* Datuak Akademian sartzen diren izangaiei buruzkoak dira.

* Los datos se refieren a las personas candidatas que ingresan en la Academia.



## 3.2 FORMAKUNTZA: MAILAZ IGOTZEKO, ESPEZIALIZATZEKO ETA BIRZIKLATZEKO IKASTAROAK

Ertzainen gaikuntza-profesionalaren optimizazioa garatu diren prestakuntza-jardueretan islatu da, sarrerako ikastaroetan, barne- espezializazio, eguneratze eta hobekuntzakoetan, euskalduntzeko ikastaroetan eta bestelako formakuntza-jardunaldietan.

## 3.2 FORMACIÓN: CURSOS DE ASCENSO, ESPECIALIZACIÓN Y RECICLAJE

La optimización de la cualificación profesional de las y los ertzainas se ha plasmado en las diferentes actividades formativas que se han desarrollado a través de cursos de ingreso, promoción interna, especialización, actualización y perfeccionamiento y euskaldunización, así como diferentes jornadas formativas.

### IKASTAROAK * / CURSOS *

#### Barne-igoerak / Promoción Interna

| | |
|---|---|
| XXVII. eta XXVIII. Promozioak / XXVII – XXVIII Promoción | 1.025 agente/s |
| Lehen mailako agenteak (ikastaro 1) / Agentes Primeras y Primeros (1 curso) | 40 agente/s |

#### Espezializazioa / Especialización

| | |
|---|---|
| 3 ikastaro / 3 cursos | 231 agente/s |

#### Eguneratzea eta hobetzea / Actualización y perfeccionamiento

| | |
|---|---|
| 103 ikastaro / 103 cursos | 4.034 agente/s |

#### Formakuntza-jardunaldiak / Jornadas formativas

| | |
|---|---|
| 14 jardunaldi / 14 jornadas | 552 agente/s |

## EUSKARAREN TREBAKUNTZA LANEKO ORDUTEGIAN

## CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA EN HORARIO LABORAL

| | |
|---|---|
| 1. HE / PL1 > 3 IKASTAROAK / CURSOS | **60** agente/s |
| 2. HE / PL2 > 2 IKASTAROAK / CURSOS | **97** agente/s |

Orduak, ikasleko; 1.HE: 560 / 2. HE: 700

Horas por alumno PL1: 560 / PL2: 700

* Ikastaroei buruzko datuak/agenteak 2019/12/10

* Datos relativos a cursos/agentes 10/12/2019

## FORMAKUNTZA DATU OROKORRAK*

## DATOS GLOBALES FORMACIÓN*

Urtean zehar eman zaizkie

A lo largo del año se han impartido

**803.689**

formakuntza-ordu

horas de formación

guztira

a un total de

**6.197**

kidegoko ertzaini

agentes del colectivo

batez beste

con un promedio de

**129,69**

ordu ertzaineko

horas por ertzaina

* Datuak / Datos: 31/12/2019

## 3.3 ERREKONOZIMENDUA

Ertzaintzaren eta ertzainen banakako eta taldeko lan onak hainbat aintzatespen jaso ditu 2019an.

Ertzaintza Donostian eta Irunen hedatu zeneko 25. urteurrena eta Hernanin hedatu zeneko 30. Urteurrena zela eta egin ziren ospakizun-ekitaldietan, esker ona adierazi zitzaien ertzainei, lan-kontratudun langileei, kontratupeko langileei eta hildako ertzainen familiei.

ETAren biktima izandako ertzainen omenez Arkauteko Museoan sortutako “Hemen Gaude” gune berriaren inaugurazioaren ostean, omenaldia egin zitzaien zerbitzuan hildako 37 agenteri, eta 20 kondekorazio eman ziren, horietako 17, ertzainei. Horietako bat, 2019an lapurtutako ibilgailuak berreskuratzeko egindako lanarengatik beste bi bereizgarri jaso zituen agente bati eman zitzaion. Urtero egiten den beste ekitaldi batean 370 plaka-ikur eman zitzaizkien erretiroa hartu duten ertzainei eta hildako ertzainen familiei.

Polizia-kudeaketan jardunbide ona saritzeko beste ekitaldi batzuk izan dira, hala nola 5S eredua aintzatesteko jardunaldia, bertan Ertzaintzako 9 unitate eta agente 1 sarituak izan direlarik. “Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz” programan parte hartzen duten ertzainei esker ona adierazteko eta EI-GI zerbitzuan lan egiten duten ertzainei euren lana aitortzeko ekitaldia izan da.

Halaber, kanpoko hainbat errekonozimendu ere jaso dituzte: Inteligentzia Bulego Nagusiaren Buruak, Nafarroako Foru Poliziaren egunean; BAIETZ erreminta analitikoak, Txilen eta Mexikon; Ertzaintzak, Aurrerabi-

## 3.3 RECONOCIMIENTO

El buen hacer individual y colectivo de la Ertzaintza y sus agentes ha sido objeto de diferentes reconocimientos a lo largo del año 2019.

Con ocasión del 25 aniversario del despliegue de la Ertzaintza en Donostia/San Sebastián e Irun, y del 30 aniversario de su despliegue en Hernani, se celebran actos conmemorativos en los que fueron reconocidos ertzainas, personal laboral, contratado y las familias de los y las ertzainas fallecidos.

Tras la inauguración del nuevo espacio “Hemen Gaude” de recuerdo permanente a los y las ertzainas víctimas de ETA, ubicado en el museo de Arkaute, se lleva a cabo el acto de homenaje por las y los 37 agentes que han fallecido en acto de servicio, y la entrega de 20 condecoraciones, 17 de ellas a ertzainas. Uno de los agentes galardonados ha recibido otras 2 distinciones a lo largo de 2019 por su labor en la recuperación de vehículos robados. También se hizo entrega en otro acto de carácter anual, de 370 placas-emblema a ertzainas que se han jubilado y a las familias de los y las ertzainas fallecidos.

Otros de los eventos de distinción a la buena práctica en la gestión policial, han sido la jornada de reconocimiento del modelo 5S en el que se distingue a 9 Unidades y a 1 agente de la Ertzaintza, el acto de reconocimiento a los y las ertzainas que colaboran en el programa “Prevención desde la comunicación” y el de reconocimiento al personal de la Ertzaintza que trabaja en el servicio de VD-VG.



den egindako lanagatik Eusko Jaurlaritzak emana, eta EAEn inplementatutako Giza salerosketaren Planak Andaluziako Juntaren aldetik. Horrez gain, Ertzaintza finalista izan zen Bartzelonako Security Forum sarien zazpigarren edizioan, jendetza pilatzen den ekitaldietarako denbora errealeko ebakuazio-sistemei buruzko proiektuan egindako lanagatik.

Chengdu hirian (Txina) egindako Polizia eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan Ertzaintzaren ordezkariek lortutako 11 dominak eta Ertzaintzako agente batek 9 mm-ko pistolaren modalitateko Euskadiko Kirol Tiroaren Lehiaketan lortutako lehenengo postua kirol-eremuan jasotako bereizgarriei batu zaizkie.

# 4. BERRIKUNTZA

Ertzaintzak berrikuntza sustatuko du bere esku dituen baliabideen antolakuntza eta kudeaketaren bitartez, helburua ezagutza berriak sartu eta irtenbideen sorrera sustatzea izanik, eta polizia-zerbitzu eta prozesu berriak garatzea edo lehendik daudenak hobetzea.

## 4.1 DRONEAK NEUTRALIZATZEKO ESPERIENTZIA

Ertzaintzak drone bidezko teknologia erabiltzeak, esparru horretan prebentzio-lanak egitea eskatzen du. Ertzaintzak 2019an arrakasta handiz erabili ditu drone-aurkako sistemak, segurtasunean arazoak eragin ditzaketen drone-hegaldiak hautemateko, eta halaxe egin zuen, esate baterako, G7ren Biarritzeko goi-bilerarako ezarritako dispositiboaren baitan.

Igualmente han sido otorgados varios reconocimientos externos: al Jefe de la Oficina Central de Inteligencia en el día de la Policía Foral Navarra, a la herramienta analítica de trabajo BAIETZ en Chile y México, a la labor desarrollada por la Ertzaintza en Aurrerabide por parte del Gobierno Vasco, así como a la implementación en la CAE del Plan contra la Trata por parte de la Junta de Andalucía. Además, la Ertzaintza resultó finalista en la séptima edición de los premios Security Forum celebrados en Barcelona, por su participación en el proyecto sobre sistemas de evacuación en tiempo real en eventos de gran afluencia de personas.

Las 11 medallas obtenidas por la representación de la Ertzaintza en los Juegos Mundiales de Policías y Personal de Extinción de Incendios celebrados en Chengdu (China) y el triunfo obtenido por un agente de la Ertzaintza en el campeonato de Euskadi de tiro deportivo con pistola de 9 mm., se suman al capítulo de distinciones recibidas en el ámbito deportivo.

# 4. INNOVACIÓN

La Ertzaintza impulsará la innovación mediante la organización y gestión de los recursos de los que dispone, con el fin de potenciar la incorporación de nuevos conocimientos y la generación de soluciones, que permitan desarrollar nuevos procesos y servicios policiales o mejorar los ya existentes.

## 4.1 EXPERIENCIA EN NEUTRALIZACIÓN DE DRONES

La utilización de la tecnología con drones por parte de la Ertzaintza implica así mismo labores de prevención en ese ámbito. En 2019, la Ertzaintza ya ha utilizado, con éxito, sistemas antidrón para detectar la existencia de vuelos de drones que supongan problemas de seguridad, tal y como se realizó con ocasión del dispositivo establecido para la cumbre del G7 en Biarritz (Francia).




## 4.2 BESTE ITSASONTZI BAT ITSASERTZEKO ZAINTZA ETA ERRESKATE LANETARAKO

Ertzaintzako Zaintza eta Erreskate Unitateko interbentzio arineko itsasontzi berriak beste bultzada bat emango dio ingurumena zaintzeko lanari, bereziki itsasoko eta ibaietako babes bereziko eremuetan. Itsasontziak, bere ezaugarriei esker, itsasertzera gehiago hurbiltzeko eta azaleko uretan nabigatu ahal izateko aukera emango du.

## 4.2 NUEVA EMBARCACIÓN PARA LABORES DE VIGILANCIA Y RESCATE EN EL LITORAL

La nueva embarcación de intervención rápida de la Unidad de Vigilancia y Rescate de la Ertzaintza supone un impulso a la vigilancia del medio ambiente, en particular en las zonas de especial protección marítima y fluvial. Las características de esta nueva embarcación permiten un mayor acercamiento a la costa y la navegación en aguas menos profundas.

## 4.3 H2020 PROIEKTUEN KUDEAKETA FINKATZEA

Ongi amaitutzat eman dira ARIES eta LETSCROWD proiektuak. ARIES proiektuaren helburua izan da egiaztagirien segurtasunaren arloan kalitate gorena bermatuko duten segurtasun-ezaugarriak eskaintzea, identitate birtuala segurtasunez kudeatzeko, aldi berean pribatutasuna errespetatuta. Bestalde, LETSCROWD proiektuak jende asko elkartzen den ekitaldietarako Europako Segurtasun Ereduaren inplementazio eraginkorra errazten du, eta Ertzaintzak hainbat erakustaldi praktiko egin ditu, esate baterako, Euroligako Lauko Finalean eta lehen mailako futbol-partiduetan.

2019an PREVISIÓN proiektua jarri da abian, ziberkrimen eta terrorismoaren aurka borroka egiteko mutur-muturreko eskalako datu-fluxuak aztertzeko euskarria emango duen tresna-multzo bat izateko. Abian jarritako beste proiektu bat INGENIUS da, eta era guztietako hondamendietan erantzuna emateko gaitasuna areagotzea, talde parte-hartzaileen autobabesa ziurtatzea eta tresna integratuen belaunaldi berria eskaintzea du helburu.

## 4.3 CONSOLIDACIÓN DE LA GESTIÓN DE LOS PROYECTOS H2020

Se dan por finalizados satisfactoriamente los proyectos ARIES y LETSCROWD. El objetivo del proyecto ARIES ha sido proporcionar características de seguridad que garanticen los más altos niveles de calidad en credenciales fiables para una seguridad física y respetuosa de la privacidad mediante procesos de gestión de identidad virtual. Por su parte, el proyecto LETSCROWD facilita la implementación efectiva del Modelo Europeo de Seguridad con respecto a los grandes eventos y grandes concentraciones de personas, y en el que la Ertzaintza ha realizado varias demostraciones prácticas tanto en la Final Four de la Euroliga de baloncesto como en partidos de primera división.

En 2019 se ha dado inicio al proyecto PREVISIÓN, orientado a ofrecer un conjunto de herramientas que proporcionen soporte para análisis de flujos de datos a escala extrema para luchar contra el cibercrimen y el terrorismo. Otro de los proyectos puesto en marcha es INGENIUS, dirigido a aumentar la capacidad de respuesta en todo tipo de desastres, asegurar la autoprotección de los equipos intervinientes y proporcionar una nueva generación de herramientas integradas.



# 5. GIZARTEA

Ertzaintzak aintzat hartua izan nahi du, barne-mailan etika profesional eta jardueraren gainbegiratzearen sustapenari ekiten dion Erakundea delako. Ertzaintzak gizartearekiko duen konpromisoa neurtzeko gardentasuna, euskararen erabileraren sustapena, aniztasunaren errespetua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta, orokorrean, giza eskubideekiko errespetua izango ditu kontuan. Gizartearekiko harremana lankidetza-lanaren bidez eta elkarrekiko aliantza onuragarriak garatuz sustatuko da, bake eta elkarbizitzaren arloan bultzatzen direnak barne. Gai hauetan egiten dituen ahaleginen berri emateko, Ertzaintzak kanpoko komunikazio-plan bat sustatuko du.

## 5.1 EUSKARA ERABILTZEKO PLANA

2018-2020 urteetarako Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana ofizialki aurkeztuta, urrats sendoak eman nahi dira jauzi kualitatiboago bat egon dadin euskal gizarte euskaldunago baten eskaerei erantzuteko.

2019an hizkuntza-mapak egin dira eta Hernani, Oria, Gernika eta Durangoko ertzain-etxeetan zerbitzua emateko eta lan egiteko hizkuntza gisa euskararen erabilera sustatzera bideratutako esku-hartze plan partikularrak ezarri dira.

Lan-ordutegian ertzainen euskarazko trebakuntzarekin jarraitu da, bai eta lanpostuan hobetzeko ikastaroekin ere. Euskarazko formakuntza laneko ordutegitik kanpo ere egiten da, ertzainak Hizkuntza Eskola Ofizial eta euskaltegi homologatuetan matrikulatuz.

# 5. SOCIEDAD

La Ertzaintza quiere ser reconocida por el fomento que a nivel interno se hace de la ética profesional y de la supervisión de sus actividades. El compromiso de la Ertzaintza con la sociedad también se medirá por su transparencia, su impulso al uso del euskera, al respeto a la diversidad, a la igualdad de hombres y mujeres y, en general, por su respeto a los Derechos Humanos. La relación con la sociedad se impulsará mediante trabajo colaborativo y desarrollo de alianzas mutuamente provechosas, incluyendo las que se impulsen en materia de paz y convivencia. Para dar a conocer sus esfuerzos en estas materias, la Ertzaintza impulsará un plan de comunicación externa.

## 5.1 PLAN DEL USO DEL EUSKERA

Con la presentación oficial del II Plan de Normalización del Uso del euskera en la Ertzaintza para los años 2018-2022, se pretende dar pasos sólidos para que se produzca un salto cualitativo en aras a dar respuesta a las demandas de una sociedad vasca más euskaldun.

En el año 2019 se han dibujado los mapas lingüísticos y se han establecido planes de intervención particulares dirigidos al fomento del uso del euskera como lengua de servicio y trabajo en las Ertzain-etxeak de Hernani, Oria, Gernika y Durango.

Dentro del horario laboral continúa la capacitación lingüística en euskera de los y las ertzainas, así como los cursos de perfeccionamiento en el puesto de trabajo. La formación en euskera también se lleva a cabo fuera del horario laboral, a través de las matriculaciones de los y las ertzainas en las Escuelas de Idiomas Oficiales y/o en los euskaltegis homologados.

## 5.2 ERTZAINTZAK ATZERRIAN DUEN PRESENTZIA SUSTATZEA

Aurrera egin da beste polizia batzuekin nazioarteko aldebiko harremanak ezartzeko bidean. Argentinako Buenos Aires probintziako Segurtasun Ministerioarekin lankidetza-akordio batera heldu da, Anberes eta Bavariako poliziekin lehendik berretsitakoekin bat egiten duena.

Bestalde, Ertzaintzaren atzerriko erakunde-harremanak sustatzeko prozesua, segurtasunaren arloko bi ekitaldi garrantzitsuetan parte hartzearen bidez gauzatu da. Maiatzean Bartzelonan egindako Security Forum azokaren zazpigarren edizioan parte hartzen da, eta azaroan Parisen egindako MILIPOL Munduko Segurtasun Azokaren hogeita batgarren edizioan.

## 5.2 POTENCIACIÓN DE LA PRESENCIA EXTERIOR DE LA ERTZAINTZA

Se avanza en el establecimiento de relaciones bilaterales de carácter internacional con otras policías. Se ha llegado a un acuerdo de cooperación con el Ministerio de Seguridad de la provincia de Buenos Aires en Argentina, que se suma a los ya ratificados con las policías de Amberes y Baviera.

Así mismo, la potenciación de las relaciones institucionales de la Ertzaintza en el exterior, se ha materializado a través de la participación en dos importantes eventos en materia de seguridad. En mayo se asiste en Barcelona a la séptima edición de la feria Security Forum y en noviembre, en París, a la vigesimoprimera edición del Salón Mundial de Seguridad Interna MILIPOL.



Topaketei esker, Ertzaintza polizia-kidego integral gisa ikusarazi ahal izan da, beste segurtasun-kidego batzuen maila berean, eta eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinak ezagutzera eman dira. Topaketa horiek beste polizia-kidego batzuekin harremanetan egoteko plataforma ere izan dira.

## 5.3 ZIEGAK DEFENTSA-ERAKUNDEEN ESKAKIZUNETARA EGOKITZEA

Bilboko Ertzain-etxeko instalazioak, atxilotuen atxiloketa-zentro bateratu izatera zuzenduak, Arartekoaren eta herriaren defendatzailearen gomendioei jarraituz berritu dira. Ezarritako hobekuntzarik aipagarrienak, ziega barruan segurtasun-kamerak instalatzea, adin nagusi eta adingabeentzako ziega bereiztuak egitea eta bandalismoaren aurkako komunak jartzea. Zaharberritze-lan horiek Ertzaintzaren gainerako polizia-zentroetara hedatuko dira.

## 5.4 KANPOKO AUDITORIAK ATXILOKETA-PROZESUAN

Atxilotutako pertsonen tratamendurako Kudeaketa Aurreratuaren Prozesuan ISO9001-2015 kalitate-ziurtagiria lortzeko AENOR enpresak egiten dituen kanpoko auditoriez gain, RIGTHS INTERNATIONAL SPAIN antolakundeak, eskubide eta askatasun zibilak sustatzea eta aldeztea helburu duenak, Ertzaintzak atxilotuei ematen dien tratamenduan egiten duen lana gainbegiratu eta baloratu du “Poliziaren zaintzapean” txostenean.

Txosten horretan positiboki baloratu du Ertzaintzak atxilotutako pertsonen tratamenduan jarraitzen duen kudeaketa aurreratuaren prozesua, eta hainbat gomendio egin ditu tratamendu horrek Europako azken zuzentarauak jarrai ditzan. Gomendio horiek 2020ko lehenengo hiruhilekoan ezarriko dira atxilotuen tratamendurako Kudeaketa Aurreratuaren Prozesuan.

Los encuentros han servido para visualizar la presencia de la Ertzaintza como cuerpo policial integral, al mismo nivel que otros cuerpos de seguridad, dar a conocer los diferentes servicios que presta y como plataforma de contacto con los diferentes cuerpos de policía presentes y otros participantes.

## 5.3 ADECUACIÓN DE LOS CALABOZOS A LAS EXIGENCIAS DE LAS DEFENSORÍAS

Las instalaciones de la Ertzain-etxea de Bilbao destinadas al centro de detención unificado de detenidos, se han reformado siguiendo las recomendaciones del Ararteko y del Defensor del Pueblo. Entre las mejoras implantadas destacan la instalación de cámaras de seguridad en el interior de las celdas, la diferenciación de celdas para mayores y menores de edad y la instalación de aseos antivandálicos. Estas reformas serán trasladadas a las dependencias del resto de centros policiales de la Ertzaintza.

## 5.4 AUDITORÍAS EXTERNAS EN EL PROCESO DE LA DETENCIÓN

Además de las auditorías externas que realiza la empresa AENOR para la obtención del certificado de calidad ISO9001-2015 en su proceso de Gestión Avanzada para el tratamiento de personas detenidas, la organización RIGTHS INTERNATIONAL SPAIN, cuya misión es la promoción y defensa de los derechos y libertades civiles, ha supervisado y valorado la labor de la Ertzaintza en el tratamiento de las personas detenidas, dentro de su informe “Bajo custodia policial”.

El informe ha resaltado positivamente el proceso de gestión avanzada existente en la Ertzaintza para el tratamiento de las personas detenidas y ha realizado algunas recomendaciones para que dicho tratamiento se ajuste a las últimas Directivas Europeas. Recomendaciones que serán implementadas en el Proceso de Gestión Avanzada para el tratamiento de personas detenidas en el primer trimestre del año 2020.

# 6.
# EMAITZAK

2019an, Euskal Poliziak (Ertzaintzak eta 25.000 biztanletik gorako udalerrietako Udaltzaingoak) 117.795 arau-hauste penal erregistratu zituen, eta delituak, beraz, 2018an baino % 2,61gehiago izan ziren. Mila biztanleko kriminalitate-tasa 53,35koa izan zen. Tasa horrek azken hiru urteetan etengabe gora egin duen arren, Ertzaintza herritarren konfiantza handiena duen hirugarren erakundea da enpresa txikien eta Unibertsitatearen atzetik. Horrez gainera, laguntzeko prestutasunari, profesionaltasunari, hurbiltasunari eta tratuan izandako adeitasunari dagokionez, herritarrek Ertzaintzari 10etik 7,5etik gorako balorazioa ematen diote. Balioespen horiek bat datoz Ertzaintzatik aldarrikatzen diren hurbiltasun, konfiantza, konpromiso eta talde balioekin.

Ertzaintzak, polizia integral gisa, besteak beste, honako kontzeptuak aldezten eta biltzen ditu bere baitan: hurbileko polizia, gizarte-kohesioa, prebentzio aktiboa eta inklusioa. Etengabeko bilakaeran dagoen polizia ereduak, diseinuarekin bat datorrena, segurtasun-estrategia berriak diseinatzen ditu, eta esparru horretan berebiziko garrantzia du delituaren prebentzioak. Eboluzio-zentzu horretan, Ertzaintzak aurrerapauso bat eman du Baietz polizia-tresna analitiko berriaren diseinu eta ezarpenarekin. Tresna horrek erraztu egiten du, gertatu aurretik, aurre-jardueran oinarritutako egungo ereduan eta eszenategi posibleetan jardutea.

# 6.
# RESULTADOS

El año 2019 cerró con 117.795 infracciones penales conocidas por la Policía Vasca (Ertzaintza y Policía Local de municipios con más de 25.000 hab.), un 2,61 % de delitos más que en 2018. Con ello, la tasa de criminalidad por mil habitantes habitantes se situó en 53,35. Pese al crecimiento constante de dicha tasa en el último trienio, la Ertzaintza se erige en el tercer lugar de las Instituciones con mayor confianza por parte de la ciudadanía, solo por detrás de las pequeñas empresas y la Universidad. Además, la valoración ciudadana con respecto a la Policía Autonómica en aspectos tales como su disponibilidad para ayudar, su profesionalidad, la cercanía y la amabilidad en el trato, alcanza puntuaciones superiores al 7,5 sobre 10. Dichas apreciaciones, acordes a los valores de cercanía, confianza, compromiso o equipo promulgados desde dicha policía.

La Ertzaintza, como policía Integral, engloba y defiende conceptos tales como los de policía de proximidad, cohesión social, prevención activa o inclusión. Un modelo policial en evolución acorde con el diseño de nuevas estrategias de Seguridad y en el que el concepto de Prevención del delito adquiere una vital importancia.
En este sentido evolutivo, la Ertzaintza ha dado un paso al frente con el diseño e instauración de la nueva herramienta policial analítica, BAIETZ. Una herramienta que facilita el modelo actual basado en la preactividad, actuando en los posibles escenarios, antes de que estos ocurran.

| | |
|---|---|
| Arau-hauste penalak / Infracciones penales | +2,61 % |
| Kriminalitate-tasa (1.000 biztanleko) / Tasa de criminalidad (por 1.000 habitantes) | 53,35 |
| Erruztatutako pertsonak* / Personas inculpadas* | +1,95 % |

* Ertzainak jasotako datuak

* Datos recogidos por la Ertzaintza

Delinkuentziaren joerak gorantz jarraitzen badu ere % 2,61, nabarmentzekoa da igoera 2018koa baino apalagoa izan dela, orduan % 6,34ko igoera lortu baitzen.

2019an,Euskal Poliziak ezagutzen dituen delituen % 77,17, ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak izan ziren. Gainera, ebasketen (% 34,65), iruzurren (% 14,77) eta kalteen (% 9,56) artean, arau-hauste guztien (% 58,98) egin zituzten. Talde horri gauzetan indarra duten lapurretak gehitzen bazaizkio, ehuneko hori delitu guztien % 72,17raino igotzen da.

Pese a que la tendencia delincuencial continúa alcista, con el incremento ya señalado del 2,61 %, es importante destacar que se ha observado un ascenso más moderado que el registrado en 2018 en el que se alcanzó una subida del 6,34 %.

En 2019, el 77,17 % de los delitos conocidos por la Policía Vasca, lo fueron contra el patrimonio y el orden socioeconómico. Pero es que, además, entre los hurtos (34,65 %), las estafas (14,77 %) y los daños (9,56 %), coparon el 58,98 % del total de las infracciones. Si a este grupo, se añaden los robos con fuerza en las cosas, el porcentaje se dispara hasta el 72,17 % del total de delitos.

## DELITUAK EAEN*
## DELITOS EN LA CAE*




* Ertzaintzak eta 25.000 biztanletik gorako udalerrietako Udaltzaingoek ezagutzen dituzten delituak.

* Delitos conocidos por la Ertzaintza y Policías locales de municipios de más de 25.000 habitantes.

Adierazitako prebentzioko polizia-ereduarekin, ekintza-plan estrategikoek funtsezko eginkizuna betetzen dute. Ekintza-plan horiek dinamikoak eta malguak izango dira, urtez urte EAEn jarduten duten talde antolatu ibiltarien modus operandi eta errealitate berri eta anitzekin bat etortzeko. Plan horien eraginkortasuna epe erdira baloratu behar da, berehalako emaitza optimoak lortzea konplexua dela kontuan hartuta.

Con el modelo policial de prevención señalado, los planes de acción estratégicos juegan un papel fundamental. Unos planes de acción que han de ser dinámicos y flexibles acordes a las nuevas y variadas realidades y modus operandi de las bandas organizadas itinerantes que operan en la CAE, año tras año. Y unos planes cuya eficacia debe ser valorada en un medio plazo dado la complejidad de obtención de unos resultados óptimos inmediatos.

**2019**

| | |
|---|---|
| **Argitutako homizidioak / Homicidios resueltos** | **100 %** |
| **EI/GIgatik hildakoak / Víctimas mortales por VD/VG** | **0** |

| | | |
|---|---|---|
| **+28** | ▲ | atxilotu sexu-erasoen delituengatik<br>detenidos por delitos de agresión sexual |
| **- % 15,6** | ▼ | lapurreta enpresatan<br>robos en empresas |
| **+5** | ▲ | homizidio (giza hilketa)<br>homicidios |
| **+ % 7,9** | ▲ | etxeko indarkeria/genero-indarkeriaren biktimak (EI/GI)<br>víctimas de violencia doméstica/violencia de género (VD/VG) |
| **+23** | ▲ | sexu-erasoen delitu<br>delitos de agresión sexual |
| **+ % 12,5** | ▲ | lapurreta etxebizitzatan<br>robos en domicilio |

# DELINKUENTZIAREN ETA SEGURTASUNIK EZAREN PERTZEPZIOA*

# PERCEPCIÓN DE LA DELINCUENCIA E INSEGURIDAD*




* **Iturria:** Deusto barometro soziala – 2019ko abendua. Euskal herritarrak kezkatzen dituzten 3 arazo nagusien inguruan galdetu da.

* **Fuente:** Deustobarómetro Social invierno 2019. Se pregunta sobre los tres principales problemas que preocupan a los vascos.

## HERRITARREK ERTZAINTZA NOLA BALORATZEN DUTEN*

## VALORACIÓN CIUDADANA SOBRE LA ERTZAINTZA*







* **Iturria**: Euskadiko Segurtasun publikoaren pertzepzioari eta biktimizazioari buruzko biurteko inkesta, 2019ko abendua.

* **Fuente**: Encuesta bienal de victimización y percepción de la seguridad pública en Euskadi diciembre 2019.



# ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIKO KONFIANTZA*
# CONFIANZA EN LAS ORGANIZACIONES / INSTITUCIONES*




* **Iturria:** Deusto barometro soziala – 2019ko abendua. Galdera honi erantzun diote: Zenbaterainoko konfiantza duzu ondorengo erakunde eta instituzioetan?

* **Fuente:** Deustobarómetro Social invierno 2019. En qué medida confías en cada una de las siguientes organizaciones o instituciones?


vialia ESTACIÓN ABANDO INDALECIO
ERTZAINTZA




# 2



# LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIA

# ATENCIÓN DE EMERGENCIAS Y METEOROLOGÍA



# AURKIBIDEA


1. SOS DEIAK- EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA
2. ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK
3. BABES ZIBILEKO JARDUERA ETA GERTAKARI AIPAGARRIENAK
4. ARAUGINTZA-JARDUERAK
5. HITZARMENAK, PROTOKOLOAK ETA BATZORDEAK
6. PLANAK
7. SIMULAZIOAK ETA JARDUERAK
8. ZABALKUNDEA
9. PRESTAKUNTZARAKO LANKIDETZA
10. EKITALDI INSTITUZIONALAK
11. BOLUNTARIOAK
12. PROIEKTU EUROPARRAK


# ÍNDICE


1. CENTRO DE COORDINACIÓN DE EMERGENCIAS DE EUSKADI SOS DEIAK
2. AVISOS, ALERTAS Y ALARMAS METEOROLÓGICAS
3. ACTUACIONES Y EPISODIOS DE PROTECCIÓN CIVIL MÁS RELEVANTES
4. ACTIVIDADES NORMATIVAS
5. CONVENIOS, PROTOCOLOS Y COMISIONES
6. PLANES
7. SIMULACROS Y EJERCICIOS
8. DIVULGACIÓN
9. COLABORACIÓN EN FORMACIÓN
10. ACTOS INSTITUCIONALES
11. VOLUNTARIADO
12. PROYECTOS EUROPEOS

# 1.
# SOS DEIAK-EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA

SOS Deiak Euskadiko larrialdiak Koordinatzeko Zentroak 2019. urtean, 112 telefonoaren bitartez, **807.305 dei** jaso eta **207.665 gertakari** kudeatu zituen.

Kudeatutako gertakari gehienak larrialdi medikoekin lotuta egon ziren (% 25,55), beste batzuk bide publikoan arriskuak antzematearekin (% 22,07), beste batzuk pertsonen istripuekin (% 15,80), trafiko istripuekin (% 10,90) eta herritarren segurtasunarekin (% 7,47).

Hartutako deietatik 431.905 Bizkaian izan ziren, 261.675 Gipuzkoan eta 113.725 Araban.

# 1.
# CENTRO DE COORDINACIÓN DE EMERGENCIAS DE EUSKADI SOS DEIAK

El Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, SOS Deiak, atendió en 2019, a través del teléfono 112, **807.305 llamadas** y gestionó **207.658 incidentes**.

La mayor parte de los incidentes gestionados estuvieron relacionados con las urgencias médicas (25,55 %), la detección de peligros en la vía pública (22,07 %), los accidentes de personas (15,80 %), los accidentes de tráfico (10,90 %) y la seguridad ciudadana (7,47 %).

En cuanto a las llamadas atendidas, en Bizkaia se produjeron 431.905, en Gipuzkoa, 261.675 y en Araba 113.725.

**ERANTZUNDAKO DEIAK**

**LLAMADAS ATENDIDAS**



Era berean, aldi horretan SOS Deiakeko APP-a 20.310 aldiz deskargatu zen eta horren bidez 270 gertakari kudeatu ziren; eCall sistemak 32 larrialdi-dei sortu zituen.

A su vez, la APP de SOS Deiak registró durante el mismo periodo 20.310 descargas que se plasmaron en 270 incidentes gestionados, mientras que el sistema eCall generó 32 llamadas de emergencia.

## KUDEATUTAKO GERTAKARIAK

## INCIDENTES GESTIONADOS






# 2. ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK.

Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarako (LAEMZ) abisuen, alerten eta alarmen sistema oinarrizko tresna bat da, meteorologia-fenomeno kaltegarrien mehatxuak eta horiek eragin ditzaketen kalte material eta pertsonalak gutxitu ahal izateko.

2019. urtean zehar, Segurtasun Sailak guztira 265 abisu hori aktibatu zituen, 38 alerta laranja eta alarma gorri bat ere ez. Nabarmendu behar da egun berean abisu hori bat baino gehiago elkar daitezkeela eta alerta laranja bat baino gehiago ere bai, fenomeno desberdinekin lotuta.

## ABISUAK NAHIERAN

Martxoaren 21ean, Meteorologiaren Munduko Eguna zela eta, Estefanía Beltrán de Heredia Segurtasuneko sailburuak "Abisuak nahieran" izeneko zerbitzu berria ezagutarazi zuen. Zerbitzu horrek babes zibilarekin lotura dauka, doakoa da eta nahi duenari meteorologia kaltegarriari buruzko iragarpenen datu zehatzak helaraz diezazkioke mezu elektronikoen bidez.

Une horretara arte, Segurtasun Sailak aktibatutako meteorologia kaltegarriari buruzko abisuak prebentzio lanetan inplikatuta zeuden organismoetara eta erakundeetara helarazten ziren, SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz.

Hain zuzen, 2019. urtean Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) 100.599 SMS eta 448.964 mezu elektroniko bidali zituen.

# 2. AVISOS, ALERTAS Y ALARMAS METEOROLÓGICAS

Para la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (DAEM) el sistema de avisos, alertas y alarmas es una herramienta fundamental a la hora de minimizar las amenazas y los posibles daños personales y materiales derivados de la meteorología adversa.

A lo largo de 2019, el Departamento de Seguridad activó un total de 265 avisos amarillos, 38 alertas naranjas y ninguna alarma roja. Es importante señalar que en una misma jornada pueden concurrir varios avisos amarillos e incluso varias alertas naranjas relacionadas con distintos fenómenos.

## AVISOS A LA CARTA

El 21 de marzo, al hilo de la conmemoración del Día Meteorológico Mundial, la Consejera del Departamento de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia, dio a conocer el nuevo servicio de "Avisos a la Carta", una herramienta relacionada con la protección civil que ofrece a quien lo desee, de forma gratuita, datos concretos de las predicciones de meteorología adversa vía correo electrónico.

Hasta entonces, los avisos derivados de la meteorología adversa activados por el Departamento de Seguridad se hacían llegar a las diversas instituciones y organismos implicados en las tareas de prevención a través del envío de SMS y correos electrónicos.

De hecho, solo en 2019 la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (DAEM) envió 100.599 SMS y 448.964 correos electrónicos.

**ABISU HAUEK GUZTIAK EMAN ZIREN**
**TOTAL DE AVISOS EMITIDOS**

| | Abisu horiak<br>Avisos amarillos | Alerta laranjak<br>Alertas naranjas | Alarma gorriak<br>Alarmas rojas | GUZTIRA<br>TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| **PREZIPITAZIOAK / PRECIPITACIONES** | | | | |
| Jarraituak / Persistentes | 19 | 4 | 0 | 23 |
| Handiak / Intensas | 19 | 2 | 0 | 21 |
| **ELURTEAK / NEVADAS** | 25 | 3 | 0 | 28 |
| **HAIZEA / VIENTO** | | | | |
| Eremu arriskutsuak / Zonas expuestas | 35 | 4 | 0 | 39 |
| Arriskurik gabeko eremuak / Zonas no expuestas | 12 | 1 | 0 | 13 |
| **ITSASOA ETA KOSTALDEA / MAR Y COSTA** | | | | |
| Uhin-garaiera nabigazioan / Altura de ola-navegación | 56 | 12 | 0 | 68 |
| Galernak / Galernas | 5 | 0 | 0 | 5 |
| Kostaldearen gaineko eragina / Impacto en costa | 41 | 5 | 0 | 46 |
| **TENPERATURAK / TEMPERATURAS** | | | | |
| Izozteak / Heladas | 21 | 0 | 0 | 21 |
| Altuak eta jarraituak / Altas persistentes | 10 | 1 | 0 | 11 |
| Altuak eta muturrekoak / Altas extremas | 11 | 6 | 0 | 17 |
| **BASO-SUTEAK / INCENDIOS FORESTALES** | 11 | 0 | 0 | 11 |
| GUZTIRA / TOTAL | 265 | 38 | 0 | 303 |

“Abisuak nahieran” izeneko zerbitzu berriari esker, edozeinek jaso ditzake abisu horiek bere helbide elektronikoan. Horretarako, Larrialdietako 112 webgunean (www.euskadi.eus/112) alta hartu beharko du, beti ere, EAEko bere intereseko eremu geografiko bat edo gehiago zein fenomeno kaltegarri mota bat edo gehiago hautatu ondoren.

Gracias al nuevo servicio de “Avisos a la Carta”, cualquier persona puede recibir también dichos avisos en su correo electrónico para lo cual deberá darse de alta en la página web de Emergencias 112 (www.euskadi.eus/112) previa selección de la zona o zonas geográficas de la CAPV que desee y el tipo o tipos de fenómenos adversos que le interesen.

## 2.1 GERTAKARI METEOROLOGIKO AIPAGARRIAK

EAEn 2019an zehar zenbait meteorologia gertakari kaltegarri gertatu dira. Hona hemen aipagarrienak:

## 2.1 EPISODIOS METEOROLÓGICOS RESEÑABLES

Varios han sido los episodios de meteorología adversa registrados en la CAPV a lo largo de 2019. Los más destacados fueron los siguientes:

- Urtarrilaren 23a eta 24a bitartean urteko lehen itsas-denboralea gertatu zen, eta horrekin batera prezipitazio ugari eta handiak eta haize handiak. Horren ondorioz, metatuak 24 orduan ia 90 l/m2-koak izan ziren estazio batzuetan (Cerroja 92.5 l/m²), baita eremu arriskutsuetan urakan itxurako haize-boladak (Oiz 132.5 km/h) ere.

- Aldi berean, elur-kota 500-600 metroetaraino jaitsi zen Araba ekialdeko eremuetan eta Gipuzkoa barruko aranetan; barrualdeko mendietan elur-lodiera handiak metatu ziren.

- Otsailaren 2an bigarren elur-denboralea gertatu zen. Erkidegoko hainbat puntutan, elur-kota 300 metrotan egon zen eta lodierak 5-10 cm bitartekoak izan ziren Lautada ekialdeko eta uren banalerroko hainbat puntutan.

- Maiatzaren 18 eta 19an, Oiartzun, Urumea eta Bidasoa ibaien arroetan uholdeak gertatu ziren eta 24 orduan eremu batzuetan (Eskas 162.2 l/m²) 120 l/m2 baino gehiago bota zituen. Metatu horien ondorioz, Jaizubiko ubideak eta Bidasoaren arroak une puntualetan gainezka egin zuten. Horrez gain, euria hain handiak izan zirenez, hainbat lur-jausi ere gertatu ziren.

- Ekaina muturreko hilabetea izan zen. Hasieran hainbat estaziotan izozteak erregistratu baziren ere, 27an eta 28an ohikoak ez diren tenperatura altuak egon ziren eta estazio batzuetan efemerideak ere izan ziren.

- Entre los días 23 y 24 de enero se produjo el primer temporal de mar del año acompañado, además, por precipitaciones abundantes e intensas y fuertes vientos. El episodio dejó acumulados cercanos a los 90 l/m² en 24 horas en algunas estaciones (Cerroja 92.5 l/m²) y rachas de viento huracanadas en zonas expuestas (Oiz 132.5 km/h).

- Al mismo tiempo, la cota de nieve bajó hasta los 500-600 m en zonas del este de Álava y en los valles interiores de Gipuzkoa, mientras que en los montes del interior se acumularon espesores muy abundantes.

- El 2 de febrero se produjo un segundo temporal de nieve. En algunos puntos de la comunidad, la cota se situó en los 300 metros de altitud con espesores que rondaron los 5-10 cm en puntos de la Llanada oriental y de la divisoria de aguas.

- Los días 18 y 19 de mayo se produjeron inundaciones en las cuencas de los ríos Oiartzun, Urumea y Bidasoa y en tan solo 24 horas se superaron los 120 l/m² en algunas zonas (Eskas 162.2 l/m²). Como consecuencia de estos acumulados se registraron desbordamientos puntuales en la regata Jaizubia y en la cuenca del Bidasoa. Además, la propia intensidad de la lluvia provocó varios desprendimientos.

- Junio fue un mes de extremos. Si bien al comienzo del mismo se registraron heladas en algunas estaciones, durante los días 27 y 28 las temperaturas fueron inusualmente altas, alcanzándose efemérides en algunas estaciones.

| ESTAZIOA / ESTACIÓN | T MAX efemeride berria<br>T MÁX efeméride nueva | Aurreko efemeride absolutua<br>Efeméride absoluta anterior | |
|---|---|---|---|
| | Tª | Tª | Urtea / Hila<br>Mes / Año |
| Moreda | 42.6 | 38.4 | 2016/07 |
| Paganos / Páganos | 40.5 | 39.1 | 2012/08 |
| Zanbrana / Zambrana | 41.3 | 41.2 | 2012/08 |
| Zugaztieta / Arboleda | 39.8 | 37.4 | 2016/08 |

Efemeride absolutuen taula / Tabla de Efemérides absolutas



Irudia Imanol Zuaznabarrek eskainia da
Imagen cortesía de Imanol Zuaznabar

- Uztailaren 23an eta 24an tenperatura altuak egon ziren; izan ere, puntu askotan minimoak 20 ºC-ren gainetik egon ziren eta maximoak uztailerako markak hausten zituzten balioetara heldu ziren barruko estazio askotan, baita Donostialdean ere, han 40 ºC baino gehiago egin baitzuen.

- 2019ko azaroa azaro euritsuena izan zen, erregistroak jasotzen direnetik, eta horrek bereziki kostaldean, Durangaldean eta Arabako Lautadan izan zuen eragina, eta beraz, Euskadiko hiru hiriburuetan ere bai. Donostian eta haren inguruetan urte osoko hileko prezipitazio altuena gertatu zen.

- Azkenik, abenduaren 9an eta 23an itsas-eta haizedenboraleak izan ziren nagusi, hasieran eremuko fluxuaren ondorioz eta geroago hainbat ekaitz atlantiko sakon jarraian etortzearen ondorioz. Balio azpimarragarrienak Matxitxakon 12an eta 22an neurtutakoak izan ziren, 160 km/h-koak.

- Los días 23 y 24 de julio se caracterizaron por las altas temperaturas. De hecho, las mínimas se quedaron en muchos puntos por encima de los 20 ºC, mientras que las máximas alcanzaron valores de récord para un mes de julio en numerosas estaciones del interior e incluso en Donostialdea, donde se superaron los 40 ºC.

- Noviembre de 2019 fue el mes de noviembre más lluvioso desde que existen registros con especial incidencia en el litoral, el Duranguesado y la Llanada Alavesa, lo que incluye a las tres capitales vascas. En San Sebastián e inmediaciones tuvo lugar la precipitación mensual más alta de todo el año.

- Por último, entre los días 9 y 23 de diciembre predominaron los temporales de mar y viento condicionados inicialmente por el flujo zonal y posteriormente por una sucesión de profundas borrascas atlánticas. Los valores más significativos se situaron en torno a los 160 km/h medidos en Matxitxako los días 12 y 22.

# 3.
# BABES ZIBILEKO JARDUERA ETA GERTAKARI AIPAGARRIENAK

2019an zehar LAEMZek kausa desberdinen ondoriozko gertakari garrantzitsu batzuetan esku hartu zuen. Aipagarrienak hauek izan ziren:

- Urtarrilaren 7an, Mungiako Bostlan enpresan 5 pertsona intoxikatu ziren, 300 kilo zirkonioren erreketaren ondorioz.
- Bi egun geroago, urtarrilaren 9an, Portugaletik zetorren eta Hondarribiarantz zihoan abioneta batek Ernio mendia jo zuen, Gipuzkoako Errezilen. Bi bidaiariak ingelesak ziren eta unean bertan bertan hil ziren.
- Martxoaren 3an, Bizkaiko Muskiz herritik hurbil baso-sute bat gertatu zen eta horren ondorioz, hainbat higiezin hustu behar izan zituzten eta A-8 Bilboko noranzkoan eta N 634 bi norabideetan moztu behar izan zituzten.
- Egun horretan bertan, 19 urteko gazte bat hil zen, Arabako Villabuena Udalerrian gertatutako sute baten ondorioz.
- Martxoaren 12an, Grande América izeneko merkataritza-ontzi italiarra Frantziako kostaldetik 333 kilometrora ondoratu zen eta uretara 2000 t fuel baino gehiago isuri zituen. Zorionez, istripuak ez zuen Euskadiko kostaldean kutsadurarik eragin.
- Maiatzaren 17aren eta 19aren artean, Vitoria-Gasteizen “Final Four” (saskibaloiko Euroligako azken fasea) egin zen. LAEMZek aktiboki lagundu zuen ezarri zitzaizkion segurtasun-lanetan.

# 3.
# ACTUACIONES Y EPISODIOS DE PROTECCIÓN CIVIL MÁS RELEVANTES

Durante 2019, la DAEM intervino en diversos incidentes de entidad relacionados con diferentes casuísticas, siendo los más relevantes los siguientes:

- El 7 de enero, 5 personas resultaron intoxicadas en la empresa Bostlan de Mungia (Bizkaia) como consecuencia de la quema de 300 kilos de circonio.
- Dos días más tarde, el 9 de enero, una avioneta procedente de Portugal, con dirección a Hondarribia, se estrelló en el monte Ernio en la localidad guipuzcoana de Errezil. Los dos tripulantes, de nacionalidad inglesa, fallecieron en el acto.
- El 3 de marzo se produjo un incendio forestal en las inmediaciones de la localidad vizcaína de Muskiz que provocó el desalojo de varios inmuebles y cortes en la A-8 dirección Bilbao y la N 634 en ambas direcciones.
- Ese mismo día, un joven de 19 años falleció como consecuencia de un incendio forestal declarado en el municipio alavés de Villabuena.
- El 12 de marzo, el mercante italiano Grande América naufragó a 333 kms. de la costa francesa vertiendo a las aguas más de 2.000 t de fuel. Afortunadamente, el accidente no tuvo repercusiones de carácter contaminante en la costa vasca.
- Entre los días 17 y 19 de mayo se celebró en Vitoria-Gasteiz la “Final Four” (fase final de la Euroliga de baloncesto). La DAEM colaboró activamente en aquellas labores de seguridad que le fueron encomendadas.

- Ekainaren 1ean, Tolosan (Gipuzkoa) bizi ziren bi anaia ito ziren Hondarribiako Eretzin kalan.
- Hilabete eta erdi geroago, uztailaren 18an, Bermeoko portuan Zodiac ontzi batek 11 urteko neska bat harrapatu eta larri zauritu zuen.
- Uztailaren 23an, 12 scout eta haien 4 monitoreak Gorbeia menditik jaisten zebiltzala, lainoa sartu zen eta larrialdietako taldeek erreskatatu behar izan zituzten.
- Abuztuaren 23tik 26ra bitartean, Ipar Euskal Herriko Miarritz herrian nazioarteko G-7 goi-bilera egin zen. Segurtasun Sailak “Muga Plana” aktibatu zuen, egun horietarako aurreikusten zen mugako trafiko ugariaren ondorioz gerta zitekeen edozein gertakari prebenitzeko.
- Irailaren 24an, Frantziatik zetorren zisterna-kamioi bat, burilo akrilatoz beteta, Sondikan (Bizkaia) harrapatuta geratu zen, okertu eta landa-bide batean sartu baitzen. Laguntzeko lanak gogorrak izan baziren ere, azkenean esku hartzen zebiltzan baliabideek ibilgailua erreskatatu ahal izan zuten, isuririk gertatu gabe.

- El 1 de junio, dos hermanos residentes en Tolosa (Gipuzkoa) fallecieron ahogados en la cala Eretzin de Hondarribia.
- Mes y medio después, el 18 de julio, una niña de 11 años de edad resultó herida de gravedad en el puerto de Bermeo tras ser arrollada por una embarcación Zodiac.
- El 23 de julio, los equipos de emergencias rescataron a un grupo de 12 scouts y 4 monitores que se vieron sorprendidos por la niebla cuando descendían del monte Gorbea.
- Del 23 al 26 de agosto tuvo lugar en la localidad vasco francesa de Biarritz la cumbre internacional del G-7. El Departamento de Seguridad activó el “Plan Muga” dirigido a prever cualquier tipo de contingencia teniendo en cuenta el numeroso tráfico fronterizo previsto durante dichas fechas.
- El 24 de septiembre, un camión cisterna procedente de Francia, cargado de acrilato de burilo, quedó atrapado en Sondika (Bizkaia) tras adentrarse por error en un camino rural. Las labores de auxilio fueron arduas, pero finalmente los recursos intervinientes lograron rescatar el vehículo sin que se produjeran derrames.



- Irailaren 30ean, Etxebarriko (Bizkaia) pabilioi industrial batean sute bat gertatu zen eta horren ondorioz, hortik ehun bat langile atera behar izan zituzten eta 3 suhiltzaile kaltetuta gertatu ziren. Itzaltzeko lanek hainbat ordu iraun zuten, sutean litio bateriak eta beste produktu kimiko batzuk erretzen ari zirelako.

- Irailaren 3an, Larrialdietako taldeek Gorbeia menditik erreskatatu zuten Larrabetzuko (Bizkaia) mendizale baten gorpua.

- Urriaren 22an, Irura inguruan (Gipuzkoa), N-1 errepidean kamioi batek su hartu zuen eta errepidea 9 orduz moztuta egon zen.

- Sei egun geroago, urriaren 28an, larrialdietako taldeek Anboto mendian Bergarako (Gipuzkoa) mendizale baten gorpua erreskatatu zuten.

- Azaroaren 13an, Gipuzkoako Eibar herriko 5 solairuko etxe baten zati bat eraitsi zen. Auzokideak aurreko arratsaldean aterarazi zituzten hortik.

- El 30 septiembre se declaró un incendio en un pabellón industrial de Etxebarri (Bizkaia) que obligó a desalojar a medio centenar de trabajadores y trabajadoras y afectó a 3 bomberos. Las labores de extinción se prolongaron durante varias horas debido a la combustión de baterías de litio y otros productos químicos.

- El 3 de octubre, los cuerpos de emergencias rescataron en el monte Gorbea el cuerpo sin vida de un montañero natural de Larrabetzu (Bizkaia).

- El 22 octubre, el incendio de un camión en la N-1, a la altura de Irura (Gipuzkoa), provocó el corte de la carretera durante 9 horas.

- Seis días más tarde, el 28 de octubre, los equipos de emergencias rescataron en el monte Anboto el cuerpo sin vida de un montañero natural de Bergara (Gipuzkoa).

- El 13 de noviembre, una vivienda de 5 alturas de la localidad guipuzcoana de Eibar sufrió un derrumbe parcial. Los vecinos y vecinas habían sido desalojados la tarde anterior.

# 4. ARAUGINTZA-JARDUERAK

LAEMZek babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan 2019. urtean burutu dituen araugintza-jardueren artean, hauek aipatu behar dira:

- 21/2019 DEKRETUA, otsailaren 12koa, Larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzekoa.

# 4. ACTIVIDADES NORMATIVAS

Dentro de las actividades de carácter normativo desarrolladas por la DAEM en materia de protección civil y gestión de emergencias, a lo largo de 2019 destacaron las siguientes:

- DECRETO 21/2019, de 12 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.




- 30/2019 DEKRETUA, otsailaren 26koa, Herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman duten borondatezko parte-hartzeari buruzko Dekretua eta Eusko Jaurlaritzak larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloan dituen sariei buruzko Dekretua aldatzen dituena.

- DECRETO 30/2019, de 26 de febrero, de modificación del Decreto sobre la participación voluntaria de la ciudadanía en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil y del Decreto de distinciones del Gobierno vasco en materia de atención de emergencias y protección civil.

# 5. HITZARMENAK, PROTOKOLOAK ETA BATZORDEAK

LAEMZen eginkizun nagusietako bat da egon daitezkeen larrialdi-egoerak modu koordinatuan kudeatzea.

Ildo horretatik, abenduaren 20an Segurtasun Sailak eta Euskadiko Gurutze Gorriko Batzorde autonomikoak eguneratu zuten 2011ko urritik aurrera indarrean zeukaten lankidetza-hitzarmena.

# 5. CONVENIOS, PROTOCOLOS Y COMISIONES

Gestionar las posibles situaciones de emergencia de forma coordinada es una de las tareas primordiales de la DAEM.

Así, el 20 de diciembre el Departamento de Seguridad y el Comité Autonómico de Cruz Roja en el País Vasco actualizaron el Convenio de Colaboración que ambas instituciones mantenían en vigor desde octubre de 2011.

Horrela, hitzarmen berria indarrean dagoen araudira egokitu da eta horrez gain, lagunduko du Batzorde horren programak eta ekintzak Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemaren gaur egungo beharrekin koordinatzen, arrisku kolektibo handiko egoeretan, hondamendietan, lazeria publikoko egoeretan etab.

Maiatzaren 24an, Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, Itsasoko Salbamendu eta Segurtasun Sozietateak (SASEMAR) eta AZTI Fundazioak beren artean informazio ozeano-meteorologikoa trukatzeko daukaten lankidetza berretsi zuten, hiru erakunde horiek martxoaren 22an protokoloa sinatu ondoren egindako lehen jarraipen-batzordean.

Azaroaren 7an Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakunde arteko Batzordeak (SPEIS) aho batez onartu zuen arrisku erradiologiko, biologiko eta kimikoekin lotutako RBQ deskontaminazio-unitateak Euskadiko hiru lurralde historikoetan zabaltzeko eta erabiltzeko erabakia.

De este modo, el nuevo Convenio no solo se adecúa a la normativa vigente, sino que también contribuye a lograr la coordinación de los programas y acciones de dicho Comité con las necesidades actuales del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil (SVAE) en situaciones de grave riesgo colectivo, catástrofe, calamidad pública, etc.

El 24 de mayo, la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Departamento de Seguridad, la Sociedad de Salvamento y Seguridad Marítima (SASEMAR) y la Fundación AZTI reafirmaron su colaboración en relación al intercambio de información océano-meteorológica en el transcurso de la primera comisión de seguimiento convocada tras la firma del protocolo suscrito por los tres organismos el 22 de marzo.

El 7 de noviembre, la Comisión Interinstitucional para los Servicios de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento (SPEIS), aprobó por unanimidad el despliegue y la utilización en los tres territorios vascos de las unidades de descontaminación RBQ relativas a los riesgos radiológicos, biológicos y químicos.



LAEMZek batzorde askotan parte hartzen du, baina nabarmendu behar dira, berriak direlako, hauek:

- Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Jarraipena egiteko eta Koordinatzeko Batzordea. LAEMZek parte hartu zuen Osasun sailburuak aurkeztutako “Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia” lantzen. Gaur egun, LAEMZek Jarraipen Batzorde horren kide da.
- Garoñako Zentral Nuklearra Desegiteko Prozesuaren Jarraipena egiteko Erakunde arteko Batzordea. Eusko Legebiltzarrak emandako Ebazpen bat betetzeko sortu zen batzorde hori.

Entre las numerosas comisiones en las que participa la DAEM caben destacar, dado su carácter novedoso, las siguientes:

- Comisión de Coordinación y Seguimiento de la Estrategia de Prevención del Suicidio. La DAEM participó en la elaboración de la “Estrategia de prevención del suicidio de Euskadi” presentada por la Consejera de Salud. Actualmente, la DAEM ya forma parte de la citada Comisión de Seguimiento.
- Comisión Interinstitucional para el Seguimiento del Proceso de Desmantelamiento de la Central Nuclear de Garoña. Creada con el fin de dar cumplimiento a una Resolución adoptada por el Parlamento Vasco.

# 6. PLANAK

Larrialdien kudeaketaren barruan lehentasunezkoa da sor daitezkeen arriskuei eman beharreko erantzunen planifikazio egoki bat egitea. 2019an zehar, LAEMZek plan hauek landu ditu:

## 6.1 BABES ZIBILEKO PLANIFIKAZIOA

### PRESAK ETA URTEGIAK

Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman zien presa hauen larrialdi planei: Loiola (Barakaldo), Zulueta (Lekeitio), Laikariz (Mungia), Gartxeta (Urduña) eta Barrendiola (Legazpi).

### ITSAS KUTSADURA

2019an zehar, Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko Euskadiko Larrialdi Plan Berezia (Itsasertza) onartzeko prozedura amaitu da.

# 6. PLANES

Dentro de la gestión de emergencias resulta prioritario establecer una correcta planificación de las respuestas ante los riesgos que puedan surgir. Durante 2019, la DAEM acometió los siguientes planes:

## 6.1 PLANIFICACIÓN EN PROTECCIÓN CIVIL

### PRESAS Y EMBALSES

La Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente en relación a los planes de emergencia de las presas de Loiola (Barakaldo), Zulueta (Lekeitio), Laikariz (Mungia), Gartxeta (Orduña) y Barrendiola (Legazpi).

### CONTAMINACIÓN MARÍTIMA

A lo largo de 2019 se culminó el procedimiento dirigido a la aprobación del Plan Especial de Emergencias de Euskadi ante la Contaminación de la Ribera del Mar (Itsasertza).

### ISTRIPU LARRIEN ARAUDIAREN MENPEKO ESTABLEZIMENDUAK (SEVESO)

Istripu larrien araudiari dagokionean, Gobernu Kontseiluak Zierbenan (Bizkaia) dagoen DBA Bilbao Port enpresaren Kanpoko Larrialdi Plana onartu zuen. Era berean, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak enpresa hauen planen aldeko txostena eman zuen: Guardian Llodio Uno SL (Laudio), Maier S. Coop (Ajangiz), Kem One SLU (Hernani), Tepsa (Zierbena) eta Electroquímica de Hernani.

### UDAL LARRIALDI PLANAK

Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman zuen Udal Larrialdi Plan hauen berrikusketa eta eguneraketa direla eta: Bizkaiko Ermua eta Plentzia; eta Gipuzkoako Azkoitia.

Horri esker, Udal horiek, dagoeneko, egon daitezkeen arriskuak eta kasuan-kasuan dituzten baliabideak kontuan hartzen dituzten jarduera-prozedura eguneratuak dituzte, dokumentuetan jasota.

### ESTABLECIMIENTOS SOMETIDOS A LA REGLAMENTACIÓN DE ACCIDENTES GRAVES (SEVESO)

En cuanto a la normativa de accidentes graves, el Consejo de Gobierno aprobó el Plan de Emergencia Exterior de la empresa DBA Bilbao Port ubicada en Zierbena (Bizkaia). Asimismo, la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente de los planes de las empresas Guardian Llodio Uno SL (Llodio), Maier S. Coop (Ajangiz), Kem One SLU (Hernani), Tepsa (Zierbena) y Electroquímica de Hernani.

### PLANES DE EMERGENCIA MUNICIPALES

La Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente acerca de la revisión y actualización de los Planes de Emergencia Municipal de las localidades vizcaínas de Ermua y Plentzia y de la localidad guipuzcoana de Azkoitia.

Gracias a ello, dichos ayuntamientos ya disponen de aquellos documentos en los que figuran los procedimientos de actuación actualizados en relación a los posibles riesgos y a los recursos disponibles en cada caso.

## 6.2 AUTOBABESA

Euskadiko gizarteak autobabesarekin lotuta egindako jarduerak ugaritu dira eta LAEMZek ere antzeman du arlo horrekin lotutako jarduerak, hein berean, handitu direla:

### AUTOBABES PLANEN ERREGISTRO OROKORRA

2019an Autobabeserako Euskal Arauari lotutako 1.057 establezimendutako larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak inskribatu eta eguneratu ziren.

### AUTOBABESAREN ARLOKO TEKNIKARI ESKUDUNAK

Era berean, Euskadiko administrazioan 207 teknikari gehiago akreditatu ziren eta horiek Autobabeserako Euskal Arauari lotutako establezimenduetarako autobabes planak egingo dituzte.

## 6.2 AUTOPROTECCIÓN

Debido al aumento de actividades relacionadas con la autoprotección desarrolladas por la sociedad vasca, la DAEM ha experimentado, en igual medida, un incremento de las acciones llevadas a cabo en esta materia:

### REGISTRO GENERAL DE PLANES DE AUTOPROTECCIÓN

En 2019 se inscribieron o actualizaron los datos relevantes para la gestión de emergencias de 1.057 establecimientos sujetos a la Norma Vasca de Autoprotección.

### TÉCNICOS COMPETENTES EN MATERIA DE AUTOPROTECCIÓN

Igualmente se acreditaron ante la administración vasca 207 nuevos técnicos y técnicas que acometerán los planes de autoprotección de los establecimientos sujetos a la Norma Vasca de Autoprotección.

## 6.3 LURRALDEAREN ANTOMENDUA ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA

Indarrean dagoen araudiaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko eta Ingurumen-baimen integratuko 79 espediente izapidetu ziren.

## 6.3 ORDENACIÓN DEL TERRITORIO E IMPACTO AMBIENTAL

Conforme a la normativa vigente se tramitaron 79 expedientes de evaluación de Impacto Ambiental y Autorización Ambiental Integrada.

| Espediente mota / Tipo de expediente | Espediente kopurua<br>Nº de expedientes |
|---|---|
| Lurraldea antolatzeko tresnak (LAG, LPP, ALP)<br>Instrumentos de ordenación del territorio (DOT, PTP, PTS) | 1 |
| Hirigintza-planifikazioa<br>Planificación urbanística | 21 |
| Planen ingurume-ebaluazioa<br>Evaluación ambiental de planes | 29 |
| Proiektueen ingurumen-ebaluazioa<br>Evaluación ambiental de proyectos | 23 |
| IPPC | 4 |
| EAELAB espedienteak<br>Expedientes COTPV | 1 |
| **GUZTIRA<br>TOTAL** | **79** |

# 7. SIMULAZIOAKETA JARDUERAK

Urtean zehar, Aveq-Kimika - Enpresa Kimikoen Euskadiko Elkartearekin batera EAEko larrialdi kimikoko sirenen sarea aktibatzeko jarduera batzuk egin ziren.

Jarduera horietaz gain, urtarrilaren 18ko goizaldean Vitoria-Gasteizko Boulevard merkataritza-zentroan atentatu-simulazio bat egin zen. Horretan 500 pertsonak parte hartu zuten, baita larrialdietako hainbat taldek, suhiltzaileek, poliziek, figuranteak eta establezimenduko segurtasun-langileek ere.

Maiatzaren 27tik ekainaren 1era, Portugalen Cascade 19 izeneko ariketa egin zen. Portugalgo Larrialdien eta Babes Zibilaren arloko Agintaritza Nazionalak (ANPC) antolatu zuen ariketa hori, Europar Batasunaren Babes Zibileko Sistemaren Mekanismoaren barruan txertatuta dago eta Europako Batzordeak finantzatu zuen.

Ekimen horretan Espainiako, Frantziako, Belgikako, Alemaniako eta Kroaziako 600 profesionalek parte hartu zuten eta horren helburua zen Babes Zibileko Sistema horrek erantzun bateratua eta integratua emateko daukan gaitasuna probatzea, larrialdi egoera konplexu asko jarraian gertatzen diren eszenatoki batean, besteak beste, lurrikarek, uholdeek, istripu kimikoek, presak apurtzeak edo itsasoaren kutsadurak eragindako larrialdi egoerak.

Euskadiko moduluan zeuden LAEMZeko Arrisku eta Larrialdietako teknikari bat, lotura- eta koordinazio-lanak egiten eta NRBQ Unitateko (Defentsa Nuklearra, Erradiologikoa, Biologikoa eta Kimikoa) 5 kide.

Ekainaren 12an, bainu-denboraldiaren irekierarekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Arratiera-Atxabiribil (Sopela) hondartzan larrialdi-simulazio bat egin zuten. Horretan uretatik bi pertsona erreskatatu ziren. Ariketak bigarren fase bat ere izan zuen, isurketa kutsagarri bat kontrolatzearekin eta deuseztatzearekin lotuta.

# 7. SIMULACROS Y EJERCICIOS

A lo largo del año se realizaron diversos ejercicios de activación de la red de sirenas de emergencia química de la CAPV en colaboración con Aveq-Kimika, Asociación Vasca de Empresas Químicas.

Al margen de dichos ejercicios, durante la madrugada del 18 de enero tuvo lugar un simulacro de atentado en el centro comercial Boulevard de Vitoria-Gasteiz en el que participaron 500 personas además de diversos cuerpos de emergencias, bomberos y policía, figurantes y personal de seguridad del propio establecimiento.

Entre los días 27 de mayo y 1 de junio se celebró en Portugal el ejercicio denominado Cascade 19 organizado por la Autoridad Nacional de Emergencia y Protección Civil de Portugal (ANPC), financiado por la Comisión Europea y enmarcado dentro del Mecanismo del Sistema de Protección Civil de la Unión Europea.

El objetivo de esta iniciativa, en la que participaron más de 600 profesionales procedentes de España, Francia, Bélgica, Alemania y Croacia, fue testar la capacidad de respuesta conjunta e integrada de dicho Sistema de Protección Civil en un escenario en el que se sucedieron múltiples y complejas situaciones de emergencias, producidas en cascada, provocadas por terremotos, inundaciones, accidentes químicos, ruptura de presas y contaminación del mar.

El módulo del País Vasco estuvo integrado por una técnica de Riesgos y Emergencias de la DAEM, en funciones de enlace y coordinación, y de 5 miembros de la Unidad NRBQ (Defensa Nuclear, Radiológica, Biológica y Química) de la Ertzaintza.

El 12 de junio, coincidiendo con la apertura de la temporada de baños, la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno vasco acometieron un simulacro de emergencia en la playa de Arratiera-Atxabiribil (Sopela) en el que fueron rescatadas dos personas de las aguas. El ejer-

Urriaren 21ean, Aenak, LAEMZekin koordinatuta, barruko simulazio bat egin zuen Gasteizko Foronda aireportuko instalazioetan.

Azaroaren 12an eta 13an, besteak beste, Espainiako Gobernuko, Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala zaintzeko Saileko langileek, itsas kutsaduraren simulazio batean parte hartu zuten. Bizkaiko Gorliz-Plentziako hondartzan egin zen simulazio horren helburua zen ebaluatzea batetik, erakundeen arteko lankidetza maila, Itsasertzaren kutsadurari aurre egiteko “Itsasertza” Planaren barruan jasotako planak gauzatzean; eta bestetik, horrelako arazoei Erantzuteko Sistema Nazionalaren (SNR) barruan Plan horrek daukan txertatze-maila.

cicio se completó con una segunda fase centrada en el control y la eliminación de un vertido contaminante.

El 21 de octubre, organizado por Aena y coordinado por la DAEM, tuvo lugar un simulacro de carácter interno en las instalaciones del aeropuerto vitoriano de Foronda.

A lo largo de los días 12 y 13 de noviembre, efectivos de los gobiernos vasco y español y del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia, entre otras instituciones y organismos, participaron en un simulacro de contaminación marina en la playa vizcaína de Gorliz-Plentzia a fin de evaluar el grado de cooperación interinstitucional de acuerdo a los diferentes planes contemplados en el Plan frente a la Contaminación Marina en la Ribera de Mar, “Itsasertza”, y su imbricación en el Sistema Nacional de Respuesta (SNR) ante este tipo de problemática.



# 8. ZABALKUNDEA

Zabalkunde etengabeak gizartearen autobabes mailak handitzen laguntzen du. Euskadiko herritarrengana berme handienarekin heltzeko helburuarekin, Zuzendaritza honek komunikazio-tresna hauek erabiltzen ditu:

LAEMZek bi Twitter-kontu aktibo ditu: @112_SOSDeiak eta @Euskalmet. Bi horiek 2019an datu hauek lortu zituzten:

# 8. DIVULGACIÓN

La divulgación continua contribuye a incrementar los niveles de autoprotección de la sociedad. A fin de llegar a la población vasca con las máximas garantías, esta Dirección utiliza las siguientes herramientas comunicativas:

La DAEM mantiene activas dos cuentas en Twitter @112_SOSDeiak y @Euskalmet. Los datos obtenidos por ambas en 2019 fueron los siguientes:

**2019AN LORTUTAKO DATUAK**
**DATOS OBTENIDOS EN 2019**

## @112_SOSDEIAK

| | | |
|---|---|---|
| Jarritako txioak: | **4.265** | Tweets emitidos |
| Jarraitzaile kopurua: | **32.279** | Seguidores |
| Web-orriaren bisitak: | **120.131** | Visitas a la página web |
| APP-aren deskargak:: | **20.310** | Descargas APP |

## @EUSKALMET

| | | |
|---|---|---|
| Jarritako txioak: | **4.740** | Tweets emitidos |
| Jarraitzaile kopurua: | **114.419** | Seguidores |
| Web-orriaren bisitak: | **10.904.345** | Visitas a la página web |

LAEMZek YouTube plataforman ere bi kanal ditu: 112 SOS Deiak eta Euskalmet. 2019. urtean dibulgaziozko eta autobabesari buruzko 14 bideo egin ziren, besteak beste, Segurtasun Sailak koordinatutako hainbat simulaziori buruzkoak eta “Abisuak nahieran” izaneko zerbitzuaren ezarpenari buruzkoak.

Esta Dirección dispone igualmente de dos canales en la plataforma YouTube: 112 SOS Deiak y Euskalmet. A lo largo de 2019 se realizaron 14 vídeos divulgativos y de autoprotección entre los que destacaron diferentes simulacros, coordinados por el Departamento de Seguridad, y los referidos a la implantación del sistema “Avisos a la Carta”.

Era berean, LAEMZek Larrialdiei Aurre egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemari buruzko dibulgaziozko bideo korporatibo bat egin zuen.

Larrialdien munduan funtsezkoa da betiko komunikabideekin (prentsa, irratia eta telebista) harreman ona eta erregularra izatea. 2019an erregistro hauek lortu ziren:

- Elkarrizketak prentsan: 52
- Elkarrizketak irratian: 116
- Elkarrizketak telebistan: 63
- Prentsa-oharrak: 52

Horrez gain, LAEMZek, Euskalmeten bitartez, urte osoan zehar (asteburuetan ere bai) eguraldiaren iragarpena modu pertsonalizatuan eskaini zien, goizeko eta arratsaldeko ordutegian, EAEko irrati hauei:

Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervión, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, eta Uribe FM. 2019an Euskalmet hasi zen asteburuko iragarpenak Goiena Telebistari ere eskaintzen.

Zabalpenaren arloan, Euskal Meteorologia Agentziak 2019an lankidetza finko hauek izan zituen:

- Berria: Eguraldiaren eguneroko iragarpena.
- Radio Euskadi: Kolaborazioa hilean behin “La Mecánica del caracol” izeneko saioan.
- Euskadi Irratia: Kolaborazioa hiru hilean behin “Norteko Ferrokarrila” saioan.

Gainera, Berria egunkariko bertsio digitalerako egunean bi soinu-interbentzio egin ziren unean-uneko iragarpena emateko.

De igual modo, la DAEM elaboró un vídeo corporativo de divulgación relativo al Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil.

En el mundo de las emergencias es fundamental mantener con los medios de comunicación tradicionales (prensa, radio y televisión) una relación fluida y regular. En 2019 se obtuvieron los siguientes registros:

- Entrevistas en prensa: 52
- Entrevistas en radio: 116
- Entrevistas en televisión: 63
- Notas de prensa: 52

Además, la DAEM, a través de Euskalmet, ofreció durante todo el año (incluidos los fines de semana) el pronóstico del tiempo de forma personalizada, en horarios de mañana y tarde, a las siguientes emisoras de radio de la CAPV:

